



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

# Konpetentzia digitalak

Graduko ikasleentzako  
formakuntza materialak

## 1. Informazioa eta datuen tratamendua

1.1. Nabigazioa, bilaketak eta informazioaren filtratzea, datuak eta eduki digitalak:

### 1.1.2. Bibliotekaren katalogoa

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Informazioa eta datuen  
tratamendua.

Nabigazioa, bilaketak eta  
informazioaren filtratzea,  
datuak eta eduki digitalak

# BIBLIOTEKAREN KATALOGOA




**CRUE**

**REBIUN**

Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



**Biblioteka/IIBZren oinarrizko tresna bat ezagutzea: katalogoa.**

**Bibliotekako dokumentuak aurkitzea, formatu elektronikoa nahiz apaletan.**


## LABURPENA

- **Katalogoa**
  - Egileen bilaketak
  - Gako-hitzen bilaketak
  - Artikuluen bilaketak
- Dokumentuak nola aurkitu eta dokumentuetara nola sartu
- Gehiago jakiteko...

# KATALOGOA

Katalogoa datu-base bat da, non Bibliotekak erositako dokumentuak bilatu eta aurki ditzakezun.

Bilaketa aurreratua   MUinfo!   Alerta zerbitzuak   Erabiltzailearen gunea   Saioa itxi   Laguntza



Guarda el QR para que ingreses desde tu dispositivo móvil

Hitza ▾ Bilaketa hitza/k.. Bilatu +

# KATALOGOA

Liburuez gain aldizkariak, tesiak, filmak, etab. aurki ditzakezu. Informazioa ere hainbat euskarritan aurkituko duzu (papera, DVD, CD-Rom, formatu elektronikoa, etab.)



**Katalogoak** eremu desberdinak erabiliz bilaketak egiteko aukera ematen du:

**IZENBURUA:** *química para ingenieros,...*

**EGILEA:** *Fontana, Josep*

**GAKO-HITZAK:** *derecho penal, economía,...*

**GAIA:** *resistencia de materiales*

Gaiak Interneten aurkitzen ditugun baliabideetako “tag”-en antzekoak dira. Kontrolatutako gai-zerrendak erabiltzen ditugu eta dokumentuak katalogatzean jartzen ditugu.


Informazio gehiago [Informazioa bilatzeko oinarritzko tresnak nola erabili](#) atalean aurkituko duzu!

1

## KATALOGOA EGILEEN BILAKETA

Ikasgai baterako, Bernardo Atxagaren lan guztiak begiratu behar ditut. Nola jakin dezaket egile honen zer lan biltzen diren Bibliotekan/IIBZ-an?

Bilaketa aurreratua MUinfo! Alerta zerbitzuak Erabiltzailearen gunea Saioa ibxi Laguntza




Guarda el QR para que ingreses desde tu dispositivo móvil

Egilea ▾ Atxaga, Bernardo Bilatu +

Egilearen izena alderantziz sartu (Abizena, Izena).

Amat abizena duen egile baten liburuaz hitz egin didate, izenburuan contabilidad hitza duena. Nola jakin dezaket Bibliotekan/IIBZan eskuragarri dagoen?



Bilaketa aurreratua   MUinfo!   Alerta zerbitzuak   Erabiltzailearen gunea   Saioa itxi   Laguntza

Hitza ▼ Amat contabilidad Bilatu +

Guarda el QR para que ingreses desde tu dispositivo móvil

Bilatzen ari zaren liburuaren, DVDaren, etab. informazio guztia ez baduzu, **gako-hitz** bitarteko bilaketa erabili beharko duzu.



## KATALOGOA ARTIKULUEN BILAKETA

Ondorengo artikulua irakurri behar dut: Michelle, M. (2009).  
New York City's War on Fat. *New England Journal of Medicine*,  
360(19):



Aldizkari baten artikulua bat aurkitu nahi duzunean, haren erreferentzia baduzu, katalogoan **aldizkariaren izenburua** bilatu beharko duzu artikuluen izenburua beharrean. Ondoren, egiaztatu item-een ea interesatzen zaizun zenbakia daukagun.

Kontsulta itzazu Mondragon Unibertsitateak harpidetutako [Aldizkari elektronikoak](#)

# NOLA AURKITU DOKUMENTUAK APALETAN

Apalean liburu bat aurkitzeko,  
kontuan izan **topografikoa** !

Apaletan liburu bat aurkitzeko kontuan izan **signatura topografikoa**, hark esango baitizu non kokatzen den liburua bibliotekan. Signaturak aldatu egingo dira dokumentua kokatzen den bibliotekaren arabera. Ondorengo diapositibetan liburutegi bakoitzeko adibide bat azalduko dugu.

Basque Culinary Center:

Signatura topografikoa

Erabilgarria, mailegatua,  
bereizia, etab.

Código de barras	Biblioteca	Clasificación	Ubicación	Tipo	Estado
B0107124	BCC	TX 723.5.B36 G37 2001	General	Libro	Disponible

Zein liburutegitan aurkitzen den  
dokumentua

Zein ataletan aurkitzen den  
dokumentua

# NOLA AURKITU DOKUMENTUAK APALETAN

## Signatura topografikoa – Sailkapena Basque Culinary Center Biblioteka

**SIGNATURA ADIBIDEA: TX 714 .A38 2016** BCC Bibliotekak Kongresuko Bibliotekaren Sailkapenean (LCC, Library of Congress Classification) oinarriturik sailkatzen ditu bere funtsak. Signatura honen elementuak ondorengoak dira:

- Larriz dauden lehenengo letrek gai nagusiak nahiz hauen banaketa irudikatzen dituzte. Kasu honetan **TX = Etxeko Ekonomia**
- Azpiklase bakoitza zenbakitan zatitzen da. **714 = Sukaldaritza – Sukaldaritza liburuak – 1800etik aurrera – Errezeta bilduma orokorrak**
- Hurrengo elementua egileen abizenak adierazten dituen kode alfanumerikoa da. **.A38 = Aduriz, Andoni**
- Azkeneko zenbakia dokumentuaren argitalpen-urtea da. Kasu honetan **2016**

Dokumentua aurkitzeko, lehenengo, alfabetikoki ordenatutako apaletara jo behar duzu. Talde alfabetiko bakoitzaren barruan dokumentuak zenbakiaren arabera ordenatzen dira. Eta azkenik, egilearen abizenaren eta argitalpen-urtearen arabera.

# NOLA AURKITU DOKUMENTUAK APALETAN

Apalean liburu bat aurkitzeko, kontuan izan **topografikoa** !

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Enpresa Zientzien Fakultatea:

Signatura topografikoa

Erabilgarria, mailegatua,  
bereizia, etab.

Código de barras	Biblioteca	Clasificación	Ubicación	Tipo	Estado
H0038946	HUHEZI	5.20 PIA cri	Depósito	Libro	Disponible

Zein liburutegitan aurkitzen den  
dokumentua

Zein ataletan aurkitzen den  
dokumentua

## SIGNATURA ADIBIDEA: 5.20 PIA cri

Signatura honen elementuak ondorengoak dira:

- **Zenbakiak:** arlo tematiko nagusiak adierazten dituzte, eta antolaketa numeriko orokor bat ahalbidetzen dute.
- **Letra larriak:** egilearen lehenengo hiru letrak adierazten dituzte, eta antolaketa alfabetikoa ahalbidetzen dute.
- **Letra xeheak:** izenburuaren lehenengo hiru letrak adierazten dituzte, eta antolaketa alfabetikoa ahalbidetzen dute.

Liburua aurkitzeko 5 zenbakia duten apaletara jo behar duzu, eta **5.20** zenbakia aurkitu. Atal honen barruan, liburuak signaturaren bigarren lerroko datuen arabera alfabetikoki ordenatuak egongo dira, kasu honetan **PIA**. Eta hauen barruan, alfabetikoki hirugarren lerroaren arabera ordenatuak egongo dira, kasu honetan **cri**.

# NOLA AURKITU DOKUMENTUAK APALETAN

Apalean liburu bat aurkitzeko, kontuan izan **topografikoa** !

Goi Eskola Politeknikoa:



# NOLA AURKITU DOKUMENTUAK APALETAN

## Signatura topografikoa – Sailkapena Goi Eskola Politeknikoaren Biblioteka

**SIGNATURA ADIBIDEA: 12 14 005**

Signatura honen elementuak ondorengoak dira:

- Zenbakien lehenengo zatia jakintza-arlo nagusi baten adierazlea da.
- Zenbakien bigarren zatia lehenengo lerroko jakintza-arlo nagusiaren barruan zehatzagoa den gai-eremu bat adierazten du.
- Zenbakien hirugarren zatia, gauden gai-eremuaren barruan antolaketa numerikoa adierazten du.

Liburua aurkitzeko **12** zenbakia duen apalera jo behar duzu (jakintza-arloa: Matematikak). Atal honen barruan, **14** zenbakia Ekuazio diferentzialen gai-eremuari dagokio. Bloke honen barruan liburuek jarraitzen duten antolaketa numerikoa da, beraz, hirugarren lerroan **005** zenbakia duen liburua hartuko genuke.

# NOLA SARTU DOKUMENTU ELEKTRONIKOETARA

Dokumentu bat formatu elektronikoa eskuragarri dagoen jakiteko, begiratu item-aren sailkapena eta kokapena.

Código de barras	Biblioteca	Clasificación	Ubicación	Tipo	Estado
M0143198	GEP/EPS	Libros electrónicos	En línea	Recurso electrónico	Disponible


Código de barras	Biblioteca	Clasificación	Ubicación	Tipo	Estado
M0142905	GEP/EPS	Revista electrónica	En línea	Revista	Disponible

Dokumentu elektronikoak "Liburu elektronikoak",  
"Aldizkari elektronikoak", etab. bezala sailkatzen dira.

Dokumentu elektronikoak "Linean" eskuragarri  
agertzen dira.



# NOLA SARTU DOKUMENTU ELEKTRONIKOETARA



URL [Testu osorako sarbidea / Acceso al texto completo / Full text access](#)

Código de barras	Biblioteca	Clasificación	Ubicación	Tipo	Estado
M0143198	GEP/EPS	Libros electrónicos	En línea	Recurso electrónico	Disponible

Dokumentu elektronikoaren testu osora sartzeko, katalogoko erregistroan **“Testu osorako sarbidea / Acceso al texto completo / Full text Access”** testuan klikatu. Dokumentura sartzeko, sistemak unibertsitateko erabiltzaile eta pasahitzarekin balidatzeko eskatuko dizu.

# NOLA AURKITU DOKUMENTUAK APALETAN

**Bilaketa bateko emaitzek lau motatako datuak erakusten dituzte:**

## BIBLIOGRAFIKOAK

Egilea, izenburua, argitalpena, gaiak, etab.

## KOKAPENA

Topografikoa, egoitza, atala, etab., eta baliabide elektronikoen kasuan, sarrera esteka baten bitartez egiten da.

## EGOERA

Erabilgarria, mailegatua, berezia, etab.

## DOKUMENTU MOTA

liburua, aldizkaria, bideoa, DVDa...

Ez duzu **barra-kodea** apuntatu behar, Biblioteka/IIBZan dugun aplikazioaren bitartez liburuak mailegatzeko bakarrik balio du.

Kontsulta ezazu webguneko [“Nola bilatu informazioa katalogoan”](#) atala.

# GEHIAGO JAKITEKO...

Begiratu:

- [Bibliotekaren Gida Lasterra](#).
- “[Nola bilatu informazioa Bibliotekan](#)” gida.
- “[Nola egin esteka iraunkorrak \(permalink-ak\) baliabide digitaletara](#)” gida.



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center  
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101  
20009, Donostia, Gipuzkoa.  
T. 943574514  
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2  
20560, Oñati, Gipuzkoa.  
T. 943718009  
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Dorleta, z/g.  
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.  
T. 943714157  
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa  
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.  
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.  
T. 943794700  
biblioteca.mgep@mondragon.edu